

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

4162

18/2022 DEKRETUA, irailaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarrenaz aldatzen duena.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailen egitura, egitekoak eta arloak zehaztu ziren. Ondoren, lehendakariaren abenduaren 28ko 48/2020 Dekretuaren bidez, aldatu egin zen dekretu hori.

Igaro den aldiaren ondoren, eta Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legea onartu ondoren, beharrezkoa da haren helburuak modu koherentean garatzea eta hura hedatzeko lanean erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea. Legeak bere helburuen zeharkakotasunaren alde egiten du, eta horrek zuzenean lotzen ditu berrikuntzarekin eta trantsizio sozialarekin; hain zuzen ere, jardun-arlo horiek Lehendakariari dagozkio. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren edukia egokitzea, gobernu-programa eraginkorra izan dadin.

Egin nahi den aldaketaren bidez, Lehendakariaren eskumen-arloan sartuko da Gazteriaren jardun-arloa, zeina, orain arte, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumen-arloaren barruan egon baita.

Ondorioz, Jaurlearitza buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikulua ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 3. artikulua lehenengo apartatuari i-bis) letra gehitzen zaio.

«i-bis) Gazteria».

Bigarren artikulua.– Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13. artikulua 1. apartatuko p) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«p) Haurrak. Nerabeak. Adingabearen babesak».

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean jartzen denean abian diren administrazio-espedituek, baldin eta dekretu honen edukia ukitzen baditu organikoki, dekretu honek ekarritako egiteko- eta antolamendu-banaketaren arabera ebatziko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honetan xedatutakoa betetzeko behar diren aurrekontu-eragiketak egingo ditu Ekonomia eta Ogasun Sailak.

2022ko irailaren 27a, asteartea

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 23an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.